

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.

Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio oraingo lege honen garapenerako eta aplikaziorako beharrezko arau orokor eta araudizkoak emateko.

Bigarrena.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, mila bederatzehun eta laurogeita hamazazpiko uztailaren hamalauan.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

**JUSTIZI, EKONOMI,
LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA**

Zk-3851

167/1997 DEKRETUA, uztailaren 8koa, Euskadiko Biologoien Elkargo Ofiziala, banaketaz, sortzen duena.

Autonomi Estatutuaren 10.22 atalean xedatzen denez, Euskal Autonomi Elkarteari eta ez beste inori dagokio elkargo profesionalen eta lanbide titulatuaren exekuzioaren gaineko eskumena, Konstituzioaren 36. eta 139. ataletan ezarritakoa hautsi gabe.

Uztailaren 8ko 1547/1994 Errege Deretuaren eta uztailaren 12ko 293/1994 Dekretuaren bitartez, Estatuko Gobernuaren eta Autonomoaren arteko akordioa onartu zen, zeinaren bitartez elkargo ofizialen eta profesionalen alorreko zerbitzuak Estatuko Administrazio-tik Euskal Autonomi Elkartera eskualdatzen baitziren. Ondorioz, esparrua EAeko lurraldean zuten elkargoen gaineko funtzioak bereganatu zituen Autonomi Elkar-teak.

Akordio horren H idazatian ezartzen denez, Administrazio Zentralari banaketa edo autonomi mailako elkargoak sortzea eskualdaketa egin aurretik eskatu zaion kasuetan, espedientea Autonomi Elkarteari bidaliko zaio, bidezko jarduerak egin ondoren honek behin betiko ebazpena eman dezan. Bistan denez, aldibaterako kasu horiek «a contrario sensu» interpretatuz gero, hortik aise ondorioztatzen da Autonomi Elkar-tea gaituta da goela aipatutako akordioa indarrean jarri osteko

DISPOSICIONES FINALES

Primera.

Se autoriza al Gobierno Vasco para dictar las normas de carácter general y reglamentario necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente ley.

Segunda.

La presente ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a catorce de julio de mil novecientos noventa y siete.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
ECONOMÍA, TRABAJO
Y SEGURIDAD SOCIAL**

Nº-3851

DECRETO 167/1997, de 8 de julio, por el que se constituye, por segregación, el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi.

El artículo 10.22 del Estatuto de Autonomía atribuye a la Comunidad Autónoma del País Vasco competencia exclusiva en materia de Colegios Profesionales y ejercicio de las profesiones tituladas, sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 36 y 139 de la Constitución.

En virtud del Real Decreto 1547/1994, de 8 de julio y Decreto 293/1994, de 12 de julio, se procedió a la aprobación por los respectivos Gobiernos, estatal y autonómico, del Acuerdo de traspaso de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de Colegios Oficiales y Profesionales, asumiéndose todas las funciones que venía realizando aquella respecto a los Colegios cuyo ámbito estuviera exclusivamente comprendido dentro del territorio propio de esta Comunidad.

Dicho Acuerdo establecía, en su apartado H, que en los supuestos en que con anterioridad a la efectividad del traspaso se hubiera solicitado ante la Administración Central la segregación o creación de colegios de ámbito autonómico, se procedería a su remisión a la Comunidad Autónoma para su definitiva resolución, una vez realizadas las actuaciones correspondientes en el ámbito de su competencia. Lógicamente, de la interpretación «a contrario sensu» de esta previsión transi-

banaketa-espedituentek ere bideratu eta ebazpena emateko.

Bestalde, Autonomi Estatutuaren aldibaterako zarpigarren xedapenean ezarritakoaren arabera eta Eusko Jaurlaritzak gai horretaz legerik ematen ez duen bitartean, araudi aplikagarria otsailaren 13ko 2/1974 Legea —elkargo profesionalak arautzen dituen eta abenduaren 26ko 74/1978 Legeak aldatu zuena— izango da.

Ondorioz, azaldutako legezko manuen babesean eta, zehazki, otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 4. atala eta Biologoien Elkargo Ofizialaren estatutuak EAEko ordezkariaren bitartez onartzen dituen apirilaren 26ko 693/1996 Errege Dekretuaren 69. atala eta horrekin bat datozenak gogoan hartuta, erakunde horrek Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailera jo du, banaketaz bertako Lurralde Elkargoa sortzeko eskatuz.

Hori guztia dela-eta, aipatutako elkargoak egin duen eskaera zuzena delako eta indarrean dauden legerik eskatzen dituzten izapideak bete ondoren, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Idazkaritzak 1997ko uztailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

1. atala.— Euskadiko Biologoien Elkargo Ofiziala sortzen da, Biologoien Elkargo Ofizialaren banaketaz. Horretarako, oraingo Lurralde Ordezkaritza eraldatu egiten da.

2. atala.— Euskadiko Biologoien Elkargo Ofizialaren eremua Euskal Autonomi Elkartearen izango da, eta bere egoitza Bilbon izango du.

ALDIBATERAKO LEHENENGO XEDAPENA

Dekretu hau indarrean jarri eta hiru hilabete gabe, Euskadiko Biologoien Elkargo Ofizialak Gobernu Batzordea aukeratzeko hauteskunde-deia egingo du.

ALDIBATERAKO BIGARREN XEDAPENA

Biologoien Elkargo Ofizialaren oraingo Euskadiko Lurralde Ordezkaritzak egingo du Elkargoaren Gobernu Batzordea aukeratzeko hauteskunde-deia eta izango da hauteskunde-burua. Hauteskundeak lanbidearen estatutuek ezarritako moduan burutuko dira.

toria se deduce de la habilitación de la Comunidad Autónoma para la instrucción y resolución de los expedientes de segregación iniciados con posterioridad a la fecha de efectividad del mencionado instrumento de traspasos.

Por otra parte, de acuerdo con lo dispuesto en la Disposición Transitoria Séptima del Estatuto de Autonomía y hasta tanto no legisle el Parlamento Vasco sobre la materia, la normativa aplicable es la Ley 2/1974, de 13 de febrero, reguladora de los Colegios Profesionales, modificada por la Ley 74/1978, de 26 de diciembre.

Es por ello que al amparo de los textos legales expuestos y, concretamente, del artículo 4 de la Ley 2/1974 de 13 de febrero y el artículo 69 y concordantes del Real Decreto 693/1996, de 26 de abril, por el que se aprueban los Estatutos del Colegio Oficial de Biólogos, a través de su delegación en el País Vasco, dicha Corporación se ha dirigido al Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social formulando petición para que se proceda a la constitución, por segregación, del correspondiente Colegio Territorial.

Sobre estas bases, considerando justificada la solicitud promovida por el referido Colegio, y una vez cumplidos los trámites previstos en la legislación vigente, a propuesta del Consejero de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión de 8 de julio de 1997,

DISPONGO:

Artículo 1.— Se constituye, por segregación del Colegio Oficial de Biólogos, el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi, mediante la transformación de la Delegación Provincial actualmente existente.

Artículo 2.— El Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi extiende su ámbito a toda la Comunidad Autónoma, radicando su sede en la ciudad de Bilbao.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA

En el plazo de tres meses a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi procederá a la convocatoria de elecciones de su Junta de Gobierno.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEGUNDA

La actual delegación en Euskadi del Colegio Oficial de Biólogos, quedará encargado de convocar y presidir las elecciones de la Junta de Gobierno del Colegio, que se desarrollarán conforme a lo que se establezca en los Estatutos de la Profesión.

ALDIBATERAKO HIRUGARREN XEDAPENA

Apirilaren 26ko 693/1996 Errege Dekretuaren bitartez onartutako Biologoek Elkargo Ofizialaren Estatutuen 62. atalean xedatutakoa hautsi gabe, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofiziala subrogatu egingo da legez eskuorde dakizkiokeen eta Biologoek Elkargo Ofizialaren Euskadiko Ordezkaritzari dagozkion eskubide eta betebeharrak guztiei dagokienez.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 1997ko uztailaren 8an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Justizi, Ekonomi, Lan eta
Gizarte Segurantzaren sailburua,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA TERCERA

Sin perjuicio de lo previsto en el artículo 62 de los Estatutos del Colegio Oficial de Biólogos, aprobados por Real Decreto 693/1996, de 26 de abril, el Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi se subrogará, además, en todos los derechos y obligaciones del Colegio Oficial de Biólogos correspondientes a su delegación territorial en Euskadi que sean legalmente transmisibles.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 1997.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Justicia, Economía,
Trabajo y Seguridad Social,
RAMÓN JÁUREGUI ATONDO.